Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

5432

AGINDUA, 2010eko urriaren 22koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, 2009ko azaroaren 25eko Agindua aldatzen duena. Izan ere, agindu horren bidez iragartzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 25eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragarri ziren.

Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak abian jarri zuen eta Euskadiko egungo krisi ekonomikoa arintzeko hainbat neurri biltzen dituen «+Euskadi 09» plan bereziaren barruan kokatzen dira.

Horrela bada, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 25eko Aginduan ezohiko laguntza bat arautzen da, Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren barruan adostutako edukiarekin, krisiaren eragina gehien jasaten dutenei –hau da, lanpostua galdu ondoren langabezia prestazioa jasotzen ez dutenei edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenei– laguntzeko, pertsona horiek guztiak gizarte-bazterkeriako egoeran edo egoera horretan erortzeko arriskuan daudela aintzat hartuta.

Aginduko 5. artikuluan jasotzen denez, programak 12 hilabeteko indarraldia izango du, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hau da, 2009ko azaroaren 27tik hasita (229. zk.).

Aginduko 7.2 artikuluan xedatzen denez, diru-laguntza eskabideak zein diru-laguntza jaso dezaketen kontratuak aginduaren indarraldian egin behar dira ezinbestean, eta horrek esan nahi du kontratuak formalizatzeko azken eguna 2010eko azaroaren 27a izango dela.

Orain arte aurkeztutako eskabideak egiteko beharrezkoa izan da entitateek proiektuak aurkeztu aurretik azterlan bat egitea. Horien arabera, ekintza berritzailea sustatzeaz gain, jarduera horrek gizarte-erabilgarritasuna izan behar zuen, eta ez zuen bat etorri behar entitateko zerrenda edo katalogoko langileen eginkizunekin.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

5432

ORDEN de 22 de octubre de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se modifica la Orden de 25 de noviembre de 2009, por la que se convocan las ayudas extraordinarias de apoyo a la contratación de personas desempleadas y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca.

Mediante Orden de 25 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, se convocan las ayudas extraordinarias de apoyo a la contratación de personas desempleadas y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca.

Estas ayudas se contemplan en el Plan extraordinario denominado «+Euskadi 09», puesto en marcha por el Gobierno Vasco como un conjunto de medidas extraordinarias dirigidas a paliar la situación actual de crisis económica vasca.

Así pues, en la Orden de 25 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, se regula una ayuda extraordinaria cuyo contenido se acordó en el seno de la Mesa de Diálogo Social para contribuir a atender a las personas más directamente afectadas por la crisis, aquellas que han perdido sus empleos y no perciben la prestación contributiva de desempleo o son perceptores de la renta de garantía de ingresos, es decir, personas en situación de exclusión social o en riesgo de padecerla.

Tal y como se recoge en el artículo 5 de la Orden la vigencia del Programa es de 12 meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, la cual se produjo el 27 de noviembre de 2009 (BOPV n.º 229).

El artículo 7.2 de la Orden señala que la formalización de los contratos subvencionables deberá realizarse necesariamente durante el período de vigencia de la Orden, lo cual conlleva que el último día para formalizar los contratos sería el 27 de noviembre de 2010.

La formulación de las solicitudes hasta ahora presentadas ha requerido por parte de las entidades la ejecución de un estudio previo para la presentación de proyectos en los que además de promoverse una actividad innovadora, esta tuviera una utilidad social y no supusiera una identidad de funciones con el personal de la relación o catálogo de dicha entidad.

Aldez aurreko azterlan hori egin behar izatearen ondorioz eskabideen aurkezpena atzeratu egin da, eta horrek, izapidetzea luzatzeaz gain, aldez aurreko azterlana entitate guztientzat beharrezkoa zenez, behin amaitu ondoren, eskabideak pilaka iritsi dira, guztiak batera.

Datu horrek, batetik, eta proposatutako kontratazioen eta jardueren bolumena dela-eta espediente asko duten konplexutasunak, bestetik, pentsarazten digute balitekeela 2010eko azaroaren 27a igaro ondoren laguntzak emateko ebazpenak ematen jarraitzea.

Horrez gain, kontuan izaten badugu laguntzak emateko ebazpenak eman ondoren beste epe bat irekitzen dela entitate onuradunak langileak hautatu eta diruz lagundutako kontratuak gauzatu ditzan, konturatu gara ebazpena jakinarazten denetik kontratuak gauzatzera bitarteko epea (2010eko azaroaren 27a), kasu askotan ez dela nahikoa izango.

Beraz, proposatzen dugun testu berrian modu logikoago batez doituko lirateke Ebazpenaren data eta entitateak langileak kontratatzeko eta ordainketarako frogagiriak prestatzeko izango lukeen denbora; izan ere, kontratuak gauzatzeko data 2011ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko bailitzateke.

Hori guztia dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Testu berri bat ematea Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragartzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 25eko Aginduko 7. artikuluko 2. paragrafoari, eta honela uztea:

«2.– Diru-laguntzen eskaerak 2010eko azaroaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dira, baina diru-laguntza jaso dezaketen kontratuak formalizatzeko epea 2011ko urtarrilaren 31ra artekoa izango da.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta aginduaren aurka badago berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko aukera Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107.

La realización de este análisis previo ha tenido como resultado que la presentación efectiva de las solicitudes se ha dilatado en el tiempo, lo cual no solo ha conllevado un retraso de cara a su tramitación, sino que además al ser este un estudio técnico previo necesario en todas las entidades, una vez concluido, la llegada de solicitudes se ha producido de forma masiva y coincidente en el tiempo.

Este dato, junto con la complejidad de muchos de los expedientes por volumen de contratación y actividades propuestas nos lleva a estimar que muy probablemente se sigan emitiendo Resoluciones de concesión de subvención más allá del 27 de noviembre de 2010.

Si tenemos en cuenta que una vez notificadas las resoluciones de concesión se abre un nuevo período para que la entidad beneficiaria proceda a la selección del personal y formulación de los contratos subvencionados, nos lleva a plantearnos que el margen desde la notificación de la Resolución y el tiempo máximo para formular los contratos (27 de noviembre de 2010) es en muchos casos insuficiente.

La nueva redacción que se propone supondría un ajuste mas razonable entre la fecha de Resolución y el plazo del que dispondría la entidad para seleccionar al personal a contratar y preparar la documentación justificativa para los pagos, puesto que se ampliaría la fecha de formalización de los contratos hasta el 31 de enero de 2011.

por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Se da nueva redacción al párrafo 2 del artículo 7 de la Orden de 25 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan las ayudas extraordinarias de apoyo a la contratación de personas desempleadas y/o perceptoras de la renta de garantía de ingresos de la Comunidad Autónoma Vasca, que queda redactado como sigue:

«2.– Las solicitudes de subvención podrán efectuarse hasta el 27 de noviembre de 2010, si bien la formalización de los contratos subvencionables, podrá realizarse hasta el 31 de enero de 2011.»

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Recursos.

La presente Orden pone fin a la vía administrativa y contra la misma cabe interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Ad-

artikulua eta hurrengoak). Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan; bi hilabeteko epean izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 10.1.a) eta 46. artikuluetan ezarritakoa betez (29/1998 Legeak Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen du).

Bigarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 22a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

ministraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, conforme a lo establecido en los artículos 10.1a) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Segunda.– Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.